

EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

443/2014 EBAZPENA, apirilaren 10koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Joseba Julen Ballestero Zarraga jauna Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente izendatu eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko duena.

Aztertu dugu Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen urtarilaren 31ko 152/2014 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2014ko otsailaren 27ko EHAA (40. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarra aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak <<curriculum vitae>>-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Joseba Julen Ballestero Zarraga jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Joseba Julen Ballestero Zarraga jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Fakultatibo Espezialista Ospitaleko Larrialdietako Mediku lanpostu funtzionalaren 24536 plazaren jabea dena, Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetza langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBATZI DU:


Lehenengoa.- Joseba Julen Ballestero Zarraga jauna Barakaldo-Sestao Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Gerente izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.- Joseba Julen Ballestero Zarraga jauna zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko apirilaren 10ean

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA**JON ETXEBERRIA CRUZ**
Osakidetza
Zuzendari Nagusia**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCOOSASUN ETA KONSUMO
SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO